

Juana Elorza Ansola

*Mendaro,
Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea

Biografia



1950. urtean Alkorta baserriko Patxi Urañekin ezkondu zen eta 1953. urtean kalera joan ziren bizitzera. Etxekoandre lanetan eta baserrian lagundu izan du eta jostuna izan zen baita ere, jertseak egiten zituen. Mendaroko bizkotxoak egiten zituzten.

Zintak

MEN-009

- **Proiektua:** Mendaroko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basurto, Aitor
- **Data:**
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Basurto, Aitor

MEN-010

- **Proiektua:** Mendaroko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basurto, Aitor
- **Data:**
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Emalea:** Basurto, Aitor

Pasarteak

1. Kalamuan gerrako frontea

- **Erref:** MEN-009/001
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:08

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Francoren indarrak Mendarora heldu zirenean, Kalamuan geratu zen gerrako frontea. Mendaron zuten atzeguardia. "Fakun-fakun-fakun" tiro hotsoa entzuten zen. Bonba-jaurtitzaileak ere agertzen ziren. Baserritarrek idiekin garraio lanak egin behar izaten zituzten.

2. Sorora ezin irten balen beldurrez

- **Erref:** MEN-009/003
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:03:16. **Bukatu:** 00:03:45

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ezin sorora lanera lasai irten. Behin, artajorran zebiltzala, ondoan sartu zitzaien tiroa eta etxera egin zuten alde arin-arin.

3. Gerra-hegazkina bonbak jaregiten

- **Erref:** MEN-009/005
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:07:25

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Txapel gorriarekin ibiltzea arriskutsua omen zen. Behin gerra-hegazkin batek askatu egin behar izan zituen aldean zeramatzan bonbak; batek zaldia hil zuen, eta beste bat gaztaina biltzen zebiltzan lekuan jausi zen. Bonba non jausi zen.

4. Bi fusilatu Mendaron

- **Erref:** MEN-009/008
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:11:48. **Bukatu:** 00:13:29

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Francok bi pertsona fusilatu zituen Mendaron. Haren tropak sartu zirenean, jendea kamioian hartu, norabait eraman eta hil egiten zuten.

5. Bandoz aldatzen saiatzeagatik makilatua

- **Erref:** MEN-009/010
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:13:56. **Bukatu:** 00:15:32

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Juanaren osaba bat harrapatu egin zuten bandoz aldatu nahirik zebilela. Makila mordoa apurtu zioten bizkarrean, informazioa atera nahirik. Patxiren osaba bat nola hil zuten.

6. Entregatutako uzta usteltzen utzi

- **Erref:** MEN-009/012
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:17:54

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean gobernuak garia, artoa eta baba errekitatzen zituen. Mendaroko irin-fabrikan pila galanta usteldu omen zen. Hartzen zen uzta gehientsua entregatu behar. Patxi soldadu egon zenean erdi usteldutako patata jan behar izaten zuten.

7. Taloa jaten aspertuta

- **Erref:** MEN-009/014
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:18:51. **Bukatu:** 00:19:38

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ez zegoen ogirik. Irina ezkutuan egin behar zen, Lasturren edo. Beti taloa zuten jateko eta guztiz aspertu zen Patxi.

8. Ezkutatutako jendea etxeetan

- **Erref:** MEN-009/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:24:15

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gizon bat ezkutatuta egon zen Juliaren etxean. Erreketea zen (karlista). Patxiren etxean ere egon zen azkoitiar bat. Gero, Francoren tropak sartu zirenean, beste aldeko asko garbitu zituzten. Nazionalistek Patxi estu hartu zuten, etxean norbait ezkutatuta zutelakoan.

9. Izarraitz puntan lehen ikurrina

- **Erref:** MEN-009/018
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:25:24. **Bukatu:** 00:26:08

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Izarraitzen ikusi zuten gerra ondoko lehen ikurrina. Euskaraz egiteko eta kantatzeko beldurrez egoten ziren.

10. Guardia zibil baten alaba erdaraz erakusten

- **Erref:** MEN-009/020
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:26:26. **Bukatu:** 00:27:02

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Guardia zibil baten alaba izan zuten etxean erdaraz erakusten.

11. Apaizen beldur bizi ziren

- **Erref:** MEN-009/022
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:30:41

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizen beldur bizi ziren, konfesatu egin behar izaten zen eta. Apaizak ere ideologia politiko ezberdinekoak ziren; hildakoak ere ugari izan ziren. Apaizen mende bizi ziren. Garizuman zazpi aste soinu barik. Azkoitia partean ezin zen dantza lotuan egin, Mendaron, ostera, bai.

12. Komunio txikia eta handia

- **Erref:** MEN-009/023
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:30:41. **Bukatu:** 00:32:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Komunio txikia eta handia egiteko bi dotrina ikasi behar ziren. Apaiza asko arrimatzen zitzaion Juanari, baina orduan ez zuen ezer txarrik pentsatzen.

13. Bulda erosiz gero bijilia eta baraurik egin behar ez

- **Erref:** MEN-009/024
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:32:25. **Bukatu:** 00:34:37

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Prezio diferenteko buldak zeuden. Merkeena erosiz gero, urteko ostiral guztietan barau eta bijilia egin behar zen. Garestiena erosiz gero, berriz, dena libre. Hijas de María eta luistarren kontuak.</p>

14. 'Enciclopédia', eskola-liburu bakarra

- **Erref:** MEN-009/026
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:34:52. **Bukatu:** 00:36:28

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Alkortan zegoen Patxiren eskola. Azkoitiko maisu bat etortzen zen. Juana kalean ibili zen. Neguan bakarrik joaten ziren. Liburu bakarra zuten: 'Enciclopédia'. Eskolara baino nahiago zuten lanean geratzea.

15. Fubolean eta afariketan

- **Erref:** MEN-009/028
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:37:34. **Bukatu:** 00:38:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Futbolean ibiltzen zen Juana. Artilezko hariaz kortxo zati bat batu eta baloia

eginda. Afariketan (kozineketan) ere bai. Patxi pilotan eta futbolean ibiltzen zen gehienbat.

16. Juliari baloia galdu sasian

- **Erref:** MEN-009/030
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:39:36. **Bukatu:** 00:40:46

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Behin Juanak baloi handi bat egin zuen, eta gustura ibiltzen ziren harekin futbolean, baina etxerakoan sasia galdu zitzaion. Sokasaltoan eta "txakurzuloka" ere ibiltzen ziren.

17. Kaniketan, koronaketan... beste ume-jolas batzuk

- **Erref:** MEN-009/031
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:40:46. **Bukatu:** 00:42:38

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Aponian (tortoloska), abarka-zarka, kaniketan, koronaketan... beste jolas batzuk.

18. Babak erre antzerkiaren bitartean

- **Erref:** MEN-009/034
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:45:15. **Bukatu:** 00:47:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umeak jaiotzen zirenean esaten zieten bilatutakoak zirela, ez zekiten amak ekartzen zituenik. Berak zaintzen zituen anai-arrebak, eta etxeko suaren eta bazkariaren ardura ere berea izaten zen. Behin antzerki moduko bat antolatu zuen umeak entretenitzeko eta babak erre zitzaizkion.

19. Ardiak ekartzea ez zitzaion gustatzen

- **Erref:** MEN-009/035
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:47:08. **Bukatu:** 00:48:18

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gero, koskortu zenean, baserriko lanetan jarduten zuen: zokor-jotzen, sagar biltzen eta abar. Ardiak menditik ekartzea ez zitzaion gustatzen.

20. Kantapaperak erosi eta kantuan

- **Erref:** MEN-009/037
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:49:28. **Bukatu:** 00:50:19

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Etxera kantuan etortzen ziren. Kantapaperak erosten zituzten ferian. Erromeriako kantuak eta soinuak gogoan hartzen zituzten.</p>

21. Nola egin zuen nobioa

- **Erref:** MEN-009/039
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:51:34. **Bukatu:** 00:54:45

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Lasturrera erromeriara joan zen baten hasi zen Patxirekin ibiltzen. Neska-laguntzetik bueltan hasi zen guztia, eta gaur arte. Erromeria askotara ez ziren joaten. Gramofono bat zuten eta auzotik gutxi mugitzen ziren. Ez zuten kaletarrik nahi izaten baserriko neskek.

22. Orduko dantza-saioak gogoan

- **Erref:** MEN-009/041
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:55:37. **Bukatu:** 00:57:45

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Ez du ezer falta izan, ondo bizi izan da. Ez daki oraingo gazteak jakingo duten dutenaz disfrutatzen. Orduko dantzaldiak ederrak ziren, orain ez dago horrelakorik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com